

**ENTITATEKO PARTAIDE  
IZATEAREN  
ZIURTAGIRIA  
JULKITZEKO,  
EZEZTATZEKO,  
BERRAKTIBATZEKO  
ETA BERRITZEKO  
PROZEDURA**

## Edukia

<b>1.</b>	<b>ZIURTAGIRIAK JAULKITZEA .....</b>	<b>3</b>
1.1	ZIURTAGIRIAK JAULKITZEKO ESKAERA.....	3
1.2	ESKATZAILEAREN NORTASUNA EGIAZTATZEA .....	3
	<b>Beharrezko dokumentazioa .....</b>	<b>3</b>
1.1	GAKOEN EDUKITZAILEEN NORTASUNA EGIAZTATZEA.....	5
1.4	ZIURTAGIRIA JAULKITZEA.....	5
1.5	ZIURTAGIRIA ENTREGATZEA.....	6
<b>2.</b>	<b>ZIURTAGIRIAK EZEZTATZEA .....</b>	<b>6</b>
<b>3.</b>	<b>ZIURTAGIRIAK ETETEA .....</b>	<b>6</b>
3.1	ETENAREN GEHIENENKO EPEA.....	6
<b>4.</b>	<b>ZIURTAGIRIAK BERRAKTIBATZEA .....</b>	<b>7</b>
<b>5.</b>	<b>ZIURTAGIRIAK BERRITZEA.....</b>	<b>7</b>

## 1. ZIURTAGIRIAK JAULKITZEA

### 1.1 ZIURTAGIRIAK JAULKITZEKO ESKAERA

Eskatzaileak ziurtagiriak eskatzeko formularioa bete beharko du. Eskabide hori <http://www.izenpe.com> helbidean izango du eskura.

Edo <http://www.izenpe.com> helbidean argitaratutako zerrendan adierazten diren bulegoetako edozeinetan.

### 1.2 ESKATZAILEAREN NORTASUNA EGIAZTATZEA

Ziurtagiria eskatzen duenak bere nortasuna egiaztatu beharko du, baita ordezkatzeko duen entitatea eratu izana eta betetzen duen ordezkari ere. Horretarako, nahikoa izango da entitatearen izenean administrazio-egintzak egiteko edo kontratuak sinatzeko ahalordeak izatea, eta horren dokumentazioa aurkeztea.

#### Beharrezko dokumentazioa

Ziurtagiriaren eskatzaileak honako dokumentazioa aurkeztu beharko du, jatorrizko dokumentuak edo kopia kautotuak izan ahal izango dira:

#### **(A) Identifikatzeko elementuak**

Eskatzailea bera agertu beharko da Identifikatzeko Entitate Publikoan bere burua identifikatzeko. Honako dokumentua aurkeztu beharko du:

1) NAN edo pasaportearen Estatuko herritarra izanez gero.

2) Atzerriko herritarra izanez gero:

- Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko Estatu bateko herritar izanez gero, Atzerriarren Nortasun Zenbakia eta nortasuna egiaztatze indarrean dagoen nortasun-agiria eskatu ahal izango da.

- Europar Batasunaz kanpoko herritarren kasuan egoitza-txartela eskatu ahal izango da.

Era berean, eskatzaileak etorkizuneko gakoaren edukitzaileetako bakoitzaren honako dokumentazioa aurkeztu beharko du: NANren fotokopia, Estatuko herritarra izanez gero; Egoitza Txartela, Europar Batasunaz kanpoko

herritarren kasuan; edo Atzerritarren Nortasun Zenbakia eta nortasuna egiaztatzeko indarrean dagoen nortasun-agiria, Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko Estatu bateko herritar izanez gero.

Ziurtagiria jaulkitzeko eskaerako sinadura notario aurrean legeztatu bada, eskatzaileak ez du zertan bertaratu bere nortasuna egiaztatzeko.

Hurrengo eskaeretan ez da beharrezkoa izango eskatzailea bertaratzea, baldin eta hasierako eskaeratik bost urte baino gutxiago pasa badira.

Identifikatzeko Entitate Publikoak eskatzailearen nortasuna egiaztatzearen akta egingo du.

### **(B) Pertsona juridikoa balioz eratu dela eta eskatzaileak behar besteko ahalordea duela egiaztatzeko dokumentazioa**

Honako dokumentazioa aurkeztu beharko da Identifikatzeko Entitate Publikoak egiazta dezan:

#### 1) Pertsona juridikoa balioz eratu dela egiaztatzeko dokumentazioa

- Entitatearen identifikazio fiskaleko zenbakia (IFK) aurkeztu beharko da.
- Merkataritza-sozietateek eta merkataritza-erregistroan edo beste erregistro publiko batean nahitaez inskribatu behar diren gainerako pertsona juridikoek, balioz eratu izana egiaztatzeko, entitatea eratzearen eta horren nortasun juridikoaren datuei buruzko erregistroko ziurtagiriaren jatorrizko kopia edo kopia kautotua aurkeztu beharko dute.
- Bestelako kasuetan, entitatea eratu izana zinez egiaztatuko duen dokumentu publikoaren jatorrizko kopia edo kopia kautotua aurkeztu beharko da.

#### 2) Eskatzaileak behar besteko ahalordea duela egiaztatzeko dokumentazioa

Ziurtagiri elektronikoa eskatzeko behar besteko ahalordea egiaztatuko duen dokumentua aurkeztu beharko da.

Horretarako, administratzaileez eta legezko ordezkariez gain, borondatezko ordezkariak ere izango dute behar beste ahalorde, betiere administrazio-egintzak egiteko edo entitatearen izenean kontratuak sinatzeko behar besteko ahalordea egiaztatzen badute.

Ziurtagiriaren eskatzaileak honako dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- Erregistroan inskribatuta egon behar duen pertsona juridiko baten administratzailea edo legezko ordezkaria izanez gero, dagokion erregistroak jaulkitako izendapenari eta karguaren indarraldiari buruzko ziurtagiriaren jatorrizko kopia edo kopia kautotua aurkeztu beharko da. Ziurtagiria eskatu aurreko hamabost egunen barruan jaulkitako ziurtagiria izan beharko du.
- Eskatzailea entitatearen borondatezko ordezkaria bada, ordezkaritza horren berri ematen duen eskritura publikoaren edo dokumentu ofizialaren jatorrizko kopia edo kopia kautotua aurkeztu beharko da. Dokumentazio horretan ordezkartzaren ahalordeak eta indarraldia eman beharko da aditzera.

Identifikatzeko Entitate Publikoak, ondoren, eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa egiaztatu izanaren akta egingo du.

### **1.3 GAKOEN EDUKITZAILEEN NORTASUNA EGIAZTATZEA**

Gakoen edukitzaileak Identifikatzeko Entitate Publikoaren aurrean egiaztatu beharko du bere nortasuna, eta bere nortasuna identifikatzeko honako dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- 1) NAN edo pasaportearen Estatuko herritarra izanez gero.
- 2) Atzerriko herritarra izanez gero:
  - Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko Estatu bateko herritar izanez gero, Atzerriarren Nortasun Zenbakia eta nortasuna egiaztatzeke indarrean dagoen nortasun-agiria eskatu ahal izango da.
  - Europar Batasunaz kanpoko herritarren kasuan egoitza-txartela eskatu ahal izango da.

Era berean, eskatzaileak eta bere datuak dituen erregistro-entitateak sinatutako eskaera eta ziurtagiria jaulkitzeko hasierako eskabidearen kopia sinatua aurkeztuko dute erregistro-entitatean.

### **1.4 ZIURTAGIRIA JAULKITZEA**

Eskatzaileak ziurtagiria jaulkitzeko eskabidea sinatu beharko du, eta, hala, onartu egingo du entitate harpidedunaren eta Izenpe, SAREN arteko harpidetza-kontratua.

Entitateko partaide izatearen ziurtagiria jaulkitzeko, ezeztatzeke, berraktibatzeke eta berritzeke prozedura

## 1.5 ZIURTAGIRIA ENTREGATZEA

Erregistro-entitateak gakoan edukitzaileari emango dio ziurtagiria, PINa eta PUKa (PINa desblokeatzeko kodea), baita txartelaren pasahitza adieraziko duen orria ere. Gainera, ziurtagiria erabiltzeko baldintzen berri emango zaio. Era berean, gakoan edukitzaileak Entrega eta Onarpen Orria sinatu beharko du.

## 2. ZIURTAGIRIAK EZEZTATZEA

Ziurtagiria ezeztatzea eskatu nahi duenak erregistro-entitatearen bulegoetakoren batera hurbildu beharko du. Bertan, bere burua NAN edo pasaportearen bidez identifikatu beharko du, Estatuko herritarra izanez gero, edo egoitza-txartel bidez, Europar Batasunaz kanpoko atzerritarra izanez gero, edo Atzerritarren Nortasun Zenbaki bidez eta nortasuna egiaztatzeko indarrean dagoen nortasun-agiri bidez, Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko Estaturen bateko herritar izanez gero. Ondoren, ziurtagiria ezeztatzeko eskaera bete beharko du. Horretarako, beharrezkoa balitz, ezeztatzeko arrazoia egiaztatzen duen agiria entregatu beharko luke.

Ezeztatzea gakoan edukitzailearen entitateak berak eskatzen badu, ahalduna ez den beste pertsona batek egin ahal izango du, betiere ezeztatze horri ekiteko beharrezko baimena duenean.

Izenpe, SAren Ziurtapen Praktiken Deklarazioko dokumentuan, 4.4. atalean, kontsulta daitezke zein diren ezeztatzeko arrazoiak eta nori eska dezakeen ezeztatzea.

## 3. ZIURTAGIRIAK ETETEA

Gakoan edukitzaileak edozein unetan eta, betiere, ziurtagiria galdu edo lapurtuz gero, eskatu ahal izango du ziurtagiria etetea, 902 542 542 telefono-zenbakira deituz. Identifikatzeko honako datuak eman beharko ditu:

- Telefono bidez identifikatzeko pasahitza.
- Gakoan edukitzailearen NAN, edo egoitza-txartela –Europar Batasunaz kanpoko atzerritarra izanez gero–, edo Atzerritarren Nortasun Zenbakia Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko Estaturen bateko herritar izanez gero.
- Entitatearen IFK.

### 3.1 ETENAREN GEHIENENKO EPEA

Etenaren gehieneko epea hamabost egunekoa izango da, gakoan edukitzaileak eskatzen duenetik hasita. Epe horretan zehar harpidedunak ziurtagiria berraktibatu nahi duela baieztatu beharko du, horretarako aurreikusitako baldintzetan.

Entitateko partaide izatearen ziurtagiria jaulkitzeko, ezeztatzeko, berraktibatze eta berritzeko prozedura

Epe hori igaro eta gakoek edukitzaileak ziurtagiria berraktibatu nahi duela baieztatzen ez badu, ziurtagiria ezeztatu egingo da.

#### **4. ZIURTAGIRIAK BERRAKTIBATZEA**

Gakoek edukitzaileak 15 eguneko epea izango du ziurtagiriak berraktibatzeko, berori eteteko eskaera egiten duenetik hasita. Epe hori igaro ondoren ziurtagiria ezeztatu egin dela ulertuko da.

Gakoek edukitzaileak erregistro-entitate batera joan beharko du ziurtagiria berraktibatzeko. Bertan, bere burua NAN edo pasaportearen bidez identifikatu beharko du, Estatuko herritarra izanez gero, edo egoitza-txartel bidez, Europar Batasunaz kanpoko atzerritarra izanez gero, edo Atzerritarren Nortasun Zenbaki bidez eta nortasuna egiaztatze indarrean dagoen nortasun-agiri bidez, Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko Estaturen bateko herritar izanez gero. Ondoren, berraktibatzeko eskaera entregatu beharko du, behar bezala beteta jakina.

#### **5. ZIURTAGIRIAK BERRITZEA**

Ziurtagiri bat berritzeko (ezeztatu egin delako edo iraungi egin delako), eskatzaileak ziurtagiri berria eskatu beharko du, ziurtagiriak jaulkitzeko finkatutako prozesuari jarraituz.